

KOSTUEN EGITURA

Enpresa baten gastuak ulertzeko eta kudeatzeko funtsezko tresna da kostuen egitura. Honek, enpresaren baliabideak nola banatzen diren, kostuak zertan eragiten duten eta nola murriztu daitezkeen aztertzen laguntzen du. Gainera, kostuen egitura ondo definitzeak hobetzeko aukera ematen du, modu honetan estrategia egokiak erabiliz eta enpresaren gastuak gutxituz.

HASIERAKO INBERTSIOA:

Lehenik eta behin, gure proiektua aurrera ateratzeko, jabe bakoitzak 2.000€ko ekarpena egingo du eta jabe bakoitzak jarriko duen diruaz gain, bankuari 30.000€ko mailegua eskatuko diogu. Diru kantitate honekin produktua egiten hasteko lagunduko liguke.



Gure produktua egiteko eta proiektua aurrera ateratzeko hasierako inbertsioa egon behar dira. Gure kasuan, makineria eta behar ditugun tresnak izango dira, beheko taulan ikus daitezkeen bezala. Inbertsioa guztira 36.000€-koa da. Horrela, prozesua martxan jarri eta gure helburuak lortzeko beharrezko baliabideak izango ditugu.

KONTZEPTUA	KOSTUA
Makineria (bihurkina, torlojuak, zirindolak...)	500€
Ordenagailua	800€
Lokalerako mahailak	119€ x 2
Lokalerako ahulkiak	49€ x 2
Entxufe erregleta	17,49€ x 2
GUZTIRA	1670,98€

KOSTUEN BANAKETA:

Gure hilabeteko kostuak zehazteko eta argi adierazteko, lehenik eta behin, kostu mota desberdinak identifikatu ditugu eta bi taldetan sailkatu ditugu, kostu finkoak eta kostu aldakorrak. Horren ondoren, talde bakoitzeko kostuak zehatz aztertu ditugu.

KOSTU FINKOAK:

Kostu finkoak berdin mantentzen diren kostuak dira, ekoizpen edo jarduerak aldatu arren. Gure kasuan, hainbat kostu finko ditugu beheko taulan ikus daitekeen bezala.

KONTZEPTUA	KOSTUA
UGGASA lokala	90€
Mailegua	400€
Publizitatea	1.300€
Webgunea	7€
Lagilearen soldata	2.000 x 6
GUZTIRA	13.797

KOSTU ALDAKORRAK:

Kostu aldakorrak izenak dioen bezela, aldatzen diren gastuak dira. Kostu hauek produktuak edo zerbitzuak gehiago edo gutxiago ekoizten diren neurrian, igo edo jeitsi egiten dira. Guk hilabeteen 144 armairu saltzea espero dugunez hilabeteko gastu aldakorrak 158.688€koak izango dira, eta urtean 1.904.256€ko kostuak

KONTZEPTUA	KOSTUA
Produktuaren kanpoko armairua	430€
Gimnasioko 20Kgko barra	57€
Gimnasioko 15Kgko barra	50€
Zintzilikatzeko barra	95€
Bankua	245€
Haltera sorta	210€

Estera	10€
Garraioa	5€
GUZTIRA	1102€

Horregatik, kostu aldakorrak eta finkoak kalkulatu ondoren jakin dezakegu, hilabeteko kostua 172.485€koa izango zela, eta hortaz urtekoa, 2.069.820€